

DOSSIER **T** **fem**

TALAIA FEMINISTA

Zer gertatzen ari da Euskal Herrian begirada feministatik?

Gure kokalekua: Han eta hemen lanean ari garen *Emakume feminista soberanista edo eta independentistak elkartu gara.

Betaurrekoak: Emakumeen errealitate zehatzetik begiratu nahi dugu, bertan bistaratzen eta hartzen du gorputza sistemak.

Patriarkatua :prozesu zehatzen bidez (ber)eraikitzen den sistema bat da. Ikuspegi sistemikoa behar dugu. Eta, (ber) eraikitzea lehia bat da, beraz, ikuspegi ez lineala ere.

Dosierra: 2023ko sei notizia esanguratsuak hartu ditugu abiapuntu: eguraldia 🌱, euskararen normalizazioaren aurkako oldarraldia 💬, bizitzaren garestitzea 📈, Greba Feminista Orokorra 🙌🙌, indarkeria matxista 🍷 eta Abayaren debekua 🙇.

Zer gertatzen ari da **eguraldiarekin**?

- Tenperatura gorakadak, lehorsteak, haizeteak, uholdeak... **ez dira elementu isolatuak.**
- **Ondorioak:** biodibertsitatearen galera, baliabideen agortzea, pobrezia energetikoa, gaixotasunak, lurralde jakin batzuekiko espoliazioa eta bortizkeria, migrazioak, oldarraidi erreakzionarioak...
- Emakumeek* eta jendarteko eremu zaugarrienak ondorio larriagoak.



Erroetara, naturarekin dugun harremana eraldatzeko

- Kolektibizazioa eta despribatizazioa
- Ekonomiaren birlokalizazioa eta lurraldean sustraitua.
- Justizia ekologikoa eta planetaren mugak barneratu.
- Funtsezko lanak duindu eta balioetsi.
- Demokratizazioa eta elkar zaintza.



Euskararen normalizazioaren aurka

- Euskara biziberritzeko politiken kontrako sententzien areagotzea, hizkuntz eskakizunak ez betetzea, Hezkuntza Legea berria... **denon eskubide beharko lukeena batzuen pribilegio.**
- Talka faltsuak: hiztunen eskubideak versus langileen eskubideak, errealitate soziolinguistikoa eta langileen eskubideak...
- **Euskara eta emakumea menderatzeko modu bera.** Euskararen feminizazioa eta hizkuntza hegemonikoaren maskulinizazioa.




Euskararen biziberritzerako

- Begirada sakona: Eskubideak, justizia soziala eta aliantzak.
- Euskararen biziberritzean **baldintza sozialak kontutan hartzeko premia.**
- **Euskara eta feminismoaren loturak.** Euskarak borroka feministari tokian toki aplikatzeko ainguratze bat, lurralde bat. Eta borroka feministak euskarari, berriz, euskararen biziberritzea interseksionalitatearen eta aliantza politiken bidea.
- **Herri Akordio beharra.**




Bizitza atzo baino garestiago gaur

- Inflazioaren datutik harago, **arazoa bizitzaren garestitzea da.**
- **Eragina oinarrizko beharretan:** elikadura, energia eta etxebizitza. Bizitzaren gaineko subiranotasuna galtzen da.
- Beharrak merkatuen eta enpresa handien esku uztearen ondorio .
- Muturreko prozesu bi: espekulazioaren bidezko aberastea gutxi batzuk, gehiengoaren prekarietatea, pobretzea eta desberdintasunak areagotzea.
- Horri aurre egiteko, familietan emakumeek **biziraupen estrategiak**, ordaindutako eta ordaindu gabeko lan gehiago hartuz.
- Genero inpaktu sakona.



Bizitza erdigunean

- Hiru eremuetatik ekin: **erosahalmenaren babesa** (soldatak, pentsioak eta prestazioak), **desparekotasunak borrokatu** (soldata arrakala, aberastasunaren eta lanen banaketa) eta **zerbitzu publikoen aldeko aldarrikapenak**.
- Gure bizitzak ez dira merkantzia izan behar (desmerkantilizazioa) eta bizitzari eusteko ardura guztiona izan behar da (desfamiliarizazioa).
- Bizi baldintza materialak ere defendatzen dituzten borrokak indartu (adibidez, sindikalismo feminista).
- Apustu bikoitza: (1) eredu publiko-pribatutik eredu publiko-komunitariora pasatzea eta (2) sustraitutako burujabetza formak indartzea (elikadura, energia...).
- Zerbitzu publiko unibertsalak eta euskaldunak behar ditugu.



GFO zaintza eta zaintzaileak erdigunera

- **Zaintza lanak:** lan ordaindugabea (familiar emakumeek) lan ordaindu prekariora. Lan hauekiko dugun harremanak egiten gaitu emakume edo gizon.
- Bilakaera demografikoak eta zerbitzu publikoen pribatizazioak: zaintzak merkaturatu, familietara edo/eta negozio bilakatzea dakar.
- Zaintza ardura bereganatzeak ondorio ekonomiko, politiko eta sozialak ditu emakumeon bizitzan. Emakume migranteak dira kolpatuenak.
- Grebak subjektu bilakatu gaitu.



GFO zaintza eta zaintzaileak erdigunera

- **Zaintza eskubide kolektiboa.** Bizitzan zehar zaintzeko eta zaindua izateko eskubidea.
- **Zaintza lanak balioan jarri, duindu eta banatu.**
- Zaintza krisiaren askotariko eragina, jendarte osoa eraldatu
- **Proposamenak:** Herri akordioa eta Zaintza publiko komunitarioan mamitzea.
- Mugimendu feministaren lidergoarekin, euskal gehiengo sindikalaren eta askotariko eragile sozialen deialdia izan da Greba Feminista.



Indarkeria matxista

- **Indarkeria matxista, patriarkatua bizirauteko ezinbesteko mekanismoa.** Luis Rubiales, Mario Lopez eta Patrick Poivre d'Arvor (PPDA)... Munstroak eraikitze joera eta isiltasun konplizea.
- 2023ak bost izen ditu: Lourdes, Maialen, Maria, Zhen eta Mateo.
- Nik sinisten dizut: elkartasunaren eta ahizpatasunaren indarra. Indarkeria matxistaren ulerkeran eta politizazioan aurrerapausoak.
- Erakundeetatik: neurri asistentzialak eta banakakoak.




Eraldaketa feminista

- Ez dago trantsizio feministarik indarkeria matxistari aurre egiten ez bazaio.
- **Politika publiko integralak** behar dira, euskal lurralde guztietan, erantzun eta eraldaketa klabeen.
- Salaketa eta erantzun publikoak ezinbestekoak izaten jarraitzen dute; **ahizpatasuna eta autodefentsa feminista**.
- **Justizia feminista**ren paradigmaman sakondu behar da, gaur egungo ereduak inpugnatuz.



Janzkera debekatu nahi berriz

- 2004ean erlijio sinboloei debekua, 2023an Abayaren debekua... **Arrazakeria eta bazterketa** indartzen du. Laikotasuna aniztasunaren kontra.
- **Emakumeon gorputzen gaineko dominazio sistemak.** Eurozentrismoa eta interseksionalitatea. Emakumeon gorputza, gatazka eta askapen esparrua. Infantilizazioa eta gorputzaren autodeterminazioa.



Gure gorputza, gure erabakia

- Polemika interesatua, eskuin muturrak sortu nahi duen polarizazioa indartzen duena.
- Frantziako feminismoa eta ezkerreko zenbait sektore ispiluaren aurrean.
- Emakumeengan inpaktu negatiboa.
- Euskal feminismoa eta euskal erakundeak **gogoeta baten aurrean**. Kultur-aniztasunaren kudeaketari ekarpena feminismotik.



2023 urtearen ondorioak

Atzerapausoak

- Bizi baldintzen gogortzea: bizitzaren garestitzea, desberdintasunen gorakada...
- Lurraren pribatizazioa eta esplotazioa: logika produktibistan jarraitzea erabaki, krisi ekologikoa sakonduz.
- Eliteen erreakzioa: Indarkeria (eta beldurra) erabilera, euskararen aurkako oldarraldia, *emakumeen gorputzen gainekeo erabakiak...

Aurrerapausuak

- Feminismoaren hegemonia, inpugnazio gaitasuna, herri eztabaidak, ea eraldaketarako proposamena(k).
- *Emakumeen antolaketa sozio-politikoa eta askotariko artikulazioak.
- Lurraldeetan errotuta dauden alternatiben eraikuntza.



Gomendioak jendarteari

Balioetsi

- Zaintzen krisia → greba feminista orokorra
- Krisi ekologikoa → eztabaida agro eta ekofeministak.
- Bizitza garestitzea → sindikalismo feminista
- Euskararen aurkako oldarraldia → erantzun antolatua
- Indarkeria matxista → ahizpatasuna eta sareak

Kontzientzia hartu

- EH ez oasia → krisi ekologiko eta eskuin muturra
- Eskubideen urraketa kolektiboak → Erabakiak dira eta erantzuleak dituzte.
- Asko egiteke → lanaren eta aberastasunaren banaketa, indarkeria, homogeneizazio kulturala, aztarna ekologikoa...
- Nazio estrategiak diseinatzeko eztabaida demokratikoak

Konpromisoa

Gure eguneroko bizitzan mundua aldatzeko aukera daukagu:

- Kontsumo ereduak (er)aldatu, naturarekiko harremana.
- Ahizpatasuna eraiki
- Aliantza maskulinoak deseraiki: ez zaintzea pribilegioa da, isiltasuna konplizea da.
- Kolektiboki antolatu behar gara larrialdian...eta normaltasunean!

Gomendioak instituzioei

Salatzen dugu

- Eskubide kolektiboen urraketa
→ Euskararen, indarkeria matxista, prekarietatea, krisi ekologikoa...
- Egoerak erantzuleak ditu: natura suntsitzen, pribatizatzen, kulturak homogeneizatzen eta indarkeria erabiltzen duen sistema.
- Erne gaude “zuriketa morea eta berdea”.

Ardurak

- Eskubideak bermatzea → funtsezko beharrentzat zerbitzu publiko unibertsal eta euskaldunak.
- Politikak artikulatzean feminismoari entzutea.
- Erosahalmena berreskuratu eta soldata arrakalak desagerrarazi
- Justizia sozialean oinarritutako deshazkundera

- Pribatizazioak geldiaraztea.
- Indarkeria matxisten aurrean: Protokolo eta politika integralak justizia feministaren ikuspegitik
- Euskararako eskubidea bermatzeko erantzukizuna: desmerkantilizazioa.
- Lurraldearen eta euskal lurraldeen arteko ikuspegi erantzunkidea eraikitzea

Gomendioak eragile sozialei

Begirada eraldatu

- Egungo egoera argi adieraztea: larrialdia eta eskubide kolektiboen urraketa.
- Kontuan hartzen ez diren dimentsioei garrantzia eman: feminista.
- Krisi ekologikoa bertan dela ulertzea.
- Eskuin muturra bertan dela ulertzea: erantzun integrala eman aliantzak eginez.

Ardatzak

- Euskal Herri burujabea eraikitzeke trantsizio prozesua feminismoz betetzea.
- Askotariko desberdintasunen aurka borrokatzeke konfluentzia espazioak
- Guztiontzako bizi-baldintza duinen defentsa, hemen eta orain, sistema finkatu gabe.
- Apustu hirukoitza: desmerkantilizazioa, desfamiliarizazioa eta eredu publiko-komunitarioa.
- Bide berriak irekitzen dituzten eztabaidak proposatzea

Gomendioak **gizonei**

Beren berrikuspenean erantzukizunak har ditzaten

- Indarkeriaren eguneroko berreraikuntzan jokatzeko duten papera
- Zaintzen arloan ardurarik ez hartzea
- Orain arte prozesu feministetan jokatu duten paper ahula berrazter dezaten, Greba feminista orokorrarekin ikusi den bezala.

DOSSIER
T fem

TALAIA FEMINISTA